

Gure ingurua aztertzen ari ginenean ideia bat topatzeko helburuarekin, gure egoera aztertzen hasi ginen, eta hau izan zen gehien kezkatzen geniguna: negua etortzen ari zen, eta ez geneukan lagunekin egoteko toki epel bat. Eta ideia hortik hasi zen gure proiektua.

Gure enpresak, aisialdirako zerbitzu bat eskainiko du. Lokal bat irekiko dugu, adin-tarte zehazteko gazteek bertan egon ahal izateko eta jendea ezagutzeko, bai udan eta bai neguan. Gainera, haien arteko harremanetan laguntzeko, hainbat ariketa prestatuko ditugu, hala nola, karaokea, gimnasia saioak...

Aipatzekoa da ere gure lokala, gizarte-etxeen osagarri bat izango dela, eta horregatik, udalaren laguntza izango dugula, adibidez, garbiketa-zerbitzuan, konponketak behar ditugunean... Hala ere, guk prestatu eta egingo ditugu ariketak, eta gu izango gara sare sozialen buruzagiak beste gauzen artean.

Gure helburu nagusia, gazteak laguntzea da, lehen esan dugun moduan. Lehenik, lokal batekin hasiko gara, baina gure plana, gero eta lokal gehiago irekitzea da, auzo ezberdinetako gazteek, lokala haien etxeetatik hurbil izateko aukera emanaz.

Leire, Iratxe, Ane eta Uxue